



ALKATETZAREN DEKRETUA

IORITZ BERRA JUARISTI, ZALDIBIAKO UDALEKO ALKATEAK, Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1. artikuluan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK,

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako egonkortze-prozesuaren barnean epaimahaiak hartutako erabakia, hau da, izangaien merezimenduen behin betiko balorazioen onspena:

Plaza/Lanpostua: Zaldibiako Udaleko Kontabilitate, diruzaintza eta dirubilketako administraria. Oinarriak: 2022/12/27ko GAO.

- Bileraren eguna: 2024/02/08
- Lekua: Zaldibiako udaletxea
- Bertaratu direnak:
 - Epaimahaiburua: Pako Zubeldia
 - Idazkaria: Maite Lasa
 - Kideak: Miryon Aldasoro, Arantxa Garmendia,
 - IVAPæko ordezkaria: Jon Ander Colombo

Akta idazterakoan izandako akatsa zuzenduta dagoela (Irakurri aktari erantsitako epaimahai buruaren 2024/02/28ko ziurtagiria)

Halaber, zegokion epean ez dela alegaziorik aurkeztu, indarrean dagoen legediak ematen didan aginpideaz baliaturik,

ERABAKI DUT

Lehenengo.- Epaimahaiak aurkeztutako eta egiaztatutako merezimenduen balorazioak ontzat ematea.



ZALDIBIAKO
UDALA

2022ILAK0001

MAIDER AGUIRRE MUGICA	100 PUNTU
AINHITZE ZINKUNEGI HUARTE	36,05PUNTU
NAIARA OTAEGUI SAIZAR	28,30 PUNTU
MIRIAM ZUÑIGA GARCIA	(Ez dugdute baremazioa egin ez duelako dokumentaziorik aurkeztu)

Bigarren.- Erabakia Zaldibiako Udalaren webgunean eta iragarki taulan argitaratzea eta 10 egun balioduneko epea ematea da erreklamazioak egin ahal izateko.

Hirugarren.- Epea igarota, behin betiko zerrenda GAOn argitaratuko da, eta puntuaketa altuena duen izangaia praktiketako funtzionario izendatuko da alkatearen dekretuz; Zaldibiako Udalaren webgunean eta iragarki taulan ere argitaratuko da.

Laugarren.- Ebazpena GAOn argitaratu eta hilabete bateko epean izangaiak lanpostua hartu beharko du eta 3 hilabeteko praktikaldia hasiko du.

Bosgarren.- Praktikaldia amaitu eta txostena aldekoa bada, karrerako funtzionario izendatuko da alkatearen dekretu bidez. Ebazpen hori GAOn eta baita Udalaren webgune eta iragarki taulan ere argitaratuko da.

Sinatzailea	ALKATEA IORITZ BERRA JUARISTI		
Kodea	B 24/0075	Udala	Zaldibia
URL	https://uzi.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/78/AAAA18CNT.mPVt		
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

